



“ZARA 50 - AIR DRAW” ZOZKETAREN OINARRIAK

2025eko irailaren 5etik 2025eko irailaren 7ra, biak barne

I. oinarria. Sariaren deskribapena.

Profirst International S.A.k (aurrerantzean, “Antolakuntza”) AIR DRAW kontzerturako sarreren zozketa egin behar du. Kontzertua bi mila eta hogeita bosteko irailaren hamaikan izango da, 20:00etatik aurrera, Cúpula del Monte De San Pedro, zenbakirik gabe, Coruñan (15011), Zararen 50. urteurrena dela eta. Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonek parte hartu ahal izango dute zozketan, eta kontzertura joan ahalko dira zozketan sari hauek irabazten badituzte:

- **AIR DRAW kontzerturako sarrera bat (1) edo bi (2), saridunek aukeratzen dutenaren arabera, eta berrehun (200) lagunentzako lekua bete arte. Kontzertua irailaren 11n izango da, Cúpula del Monte De San Pedro, zenbakirik gabe, Coruñan (15011). Joan-etorriak eta ostatua ez daude sartuta**

Zozketan parte hartzeko epea 2025eko irailaren 5eko 10:00etatik 2025eko irailaren 7ko 23:59ra artekoa izango da (biak barne).

Zozketa II. oinarrian adierazten den egunean egingen da.

Irabazleak ezin izango du saria trukatu, aldatu edo horrengatik dirua jaso.

Gonbidapena doakoa denez, sari honen merkatuko balioa zero eurokoa da (0,00 euro); beraz, ez du zerga ondoriorik. Hala ere, saria onartzeak ekar dezakeen kostu oro saridunak bere gain hartuko du.

II. oinarria.- Zozketa-eguna.

Zozketa irailaren 8an egingo da, Coruñako Isidoro Antonio Calvo Vidal notario jaunaren aurrean, eta bere aurrean gordailutu dira oinarri hauek.

Justifikatutako arrazoiren batengatik goian adierazitako datan zozketa ezin bada egin, hurrengo egun baliodunean egingo da.

III. oinarria.- Zozketan parte hartzeko eta saria jasotzeko baldintzak.

A) Ondoren adierazten diren baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonek har dezakete parte zozketan:

- 18 urtetik gorakoa izatea.
- Gaitutako formularioko eremu guztiak bete eta datu pertsonal hauek webgunean eman izana*: Izen-abizenak, harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa.
- Oinarri hauek onartzea.
- Cúpula del Monte De San Pedron egingo den kontzertura joateko baldintzak eta zehaztapenak onartu izana. Baldintza horiek Oinarri hauen 1. Eranskinean daude.

B) Ez dute sarirako eskubiderik izango:

- Erakundearen iritziz, sustapen honetan iruzurrez jardun duten pertsonak.

IV. oinarria. Zozketaren egitura.

Parte-hartzaileen datuetan oinarrituta, fitxategi informatizatu bat aterako da. Horretarako, tresna elektronikoko batek ausaz aukeratuko ditu saridunak, eta zozketaren hurrenkeraren arabera, sarrera bat (1) edo bi (2) aukeratu ahal izango dituzte, berrehun (200) pertsonako lekua bete arte.

Notarioak zozketa egiteko erabiltzen duen programak gardentasun- eta ekitate-printzipioak jarraitzen ditu.

Aurreko oinarriko B) atalean azaldutako bezalako egoeretan, edo sariaren irabazlea aurkitzen ez bada edo irabazleak saria onartzen ez badu, hurrenkeraren arabera hautatuko da hurrengo sariduna, eta horrela hurrenez hurren.

Edozein arrazoi dela-eta, saridunetako batek ezin badu saria jaso, ezin izango du saria eskualdatu edo eman, eta, hurrenkeraren arabera, hurrengo saridunari esleituko zaio, eta horrela hurrenez hurren.

V. Oinarria. Saria jakinaraztea eta sariaz gozatzea.

Saria irabazleei jakinaraziko zaie, izena emateko formularioan emandako posta elektronikora bidalitako mezu bidez edo dei bidez.

Jakinarazpenean, saria emateko beharrezkoak den informazioa emango da eta, hala badagokio, irabazleek eman beharreko datu pertsonal osagarriak eskatuko dira.

Irabazleak gehienez 24 orduko epean onartu beharko du saria, erakundeak horretarako egiten dion jakinarazpenetik kontatzen hasita. Saria onartzen ez bada edo irabazleak aurkitzen ez badira, saria eman gabe geratuko da. Saria emateko bete beharreko baldintzak zehaztuko dira jakinarazpenean.

VI. Oinarria. Erantzukizunetik salbuestea.

Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango sariaren erabileran eragina izan dezaketen galera, narriadura, lapurreta, atzerapen edo hirugarrenei egotz dakiekeen edozein inguruabarren aurrean.

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko ekitaldia behar bezala egitea eragozten duten bestelako arrazoiak direla-eta data, kokapena edo egitaraua aldatzeko balizko erantzukizunik.

VII. Oinarria. Zozketaren pribatutasun-politika.

Profirst International, S.A.k, tratamenduaren arduraduna den aldetik, oinarri hauetan deskribatutako prozeduraren bidez zozketan parte hartzeko parte-hartzaileek ematen dituzten datu pertsonalak erabiliko ditu, zozketa egiteko eta kudeatzeko helburuarekin, eta zozketaren dinamikaren arabera. Datu horiek tratatzeko lege-oinarria oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzea da.

Halaber, adierazitako helburua betetzeko, parte-hartzaileek eta irabazleek badakite beharrezkoa dela Profirst International, S.A.k beren datu pertsonaletarako sarbidea ematea zozketaren kudeaketan Profirst International, S.A.ri laguntza ematen dioten hirugarrenei, hala nola zerbitzu teknologikoei, eta, zozketaren dinamikagatik beharrezkoa izanez gero, hirugarrenei, saria entregatze aldera.

Zenbait kasutan eta zerbitzuaren eraginkortasunerako, aipatutako zerbitzu-emaileetako batzuk Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko lurraldeetan egon daitezke, non Europar Batasunaren pareko babes-mailarik ematen ez den. Kasu horietan, parte-hartzaileei jakinarazi zaie beren datuak berme egokiekin transferituko direla, betiere parte-hartzaileen datuen segurtasuna zainduz, kontratu klausula tipoen bidez adibidez. Parte-hartzaileek esteka honetan kontsultatu dezakete klausula horien edukia: https://ec.europa.eu/info/law/law-topic/data-protection/international-dimension-data-protection/standard-contractual-clauses-scc_en

Zozketa eta hari dagozkion kudeaketa guztiak amaitu ondoren, sei (6) hilabeteko epean zozketa kudeatzea helburu duten datu-baseetan bildutako datu pertsonalak ezabatuko dira.

Datuak babesteko eskubideak: Edonola ere, parte-hartzaileek, irabazleek eta/edo hirugarrenek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, horien tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubideak erabili ahalko dituzte, bai eta datuak babesteko araudiaren arabera dagokien beste edozein eskubide erabili ere. Horretarako, mezu elektroniko bat bidali beharko dute info@profirst.com helbidera, gaian “Sorteo 50 aniversario” (50. urteurreneko zozketa) idatzi eta erabili nahi duten eskubidea adierazi. Beharrezkoa izanez gero, Profirst International, S.A.k informazio osagarria eskatu ahal izango dizu identifikatu ahal izateko.

Halaber, parte-hartzaileek Datuak Babesteko Ordez kariarekin harremanetan jarri ahal izango dute, datuen babesarekin zerikusia duen edozein kontsulta egiteko, helbide elektroniko honetara idatziz: pierre.colaiacovo@profirfirst.com. Halaber, Europako Esparru Ekonomikoan baldin badaude, eskubidea dute dagokion datuak babesteko kontrol-agintaritzan erreklamazioa aurkezteko: https://edpb.europa.eu/about-edpb/board/members_en.

VIII. Oinarria. Oinarriak onartzea.

Parte-hartzaileek, sustapen honetan parte hartze hutsagatik, haren oinarriak eta Erakundearen irizpidea onartzen dituzte, zozketatik eratorritako edozein gai ebatzeari dagokionez.

IX. Oinarria. Oinarrien gordailua.

Sustapen honen oinarriak www.zara.com gunean daude zehaztuta, eta nahi duen orok kontsultatu ahal izango ditu.

1. ERANSKINA: CÚPULA DEL MONTE DE SAN PEDROKO KONTZERTURA JOATEKO BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK

INDUSTRIA DE DISEÑO TEXTIL, S.A. (laburtuta, INDITEX, S.A.) Espainiako sozietatea da, egoitza Avenida de la Diputación, Edificio Inditex, Arteixo, A Coruña dauka, A Coruña probintziako Merkataritza Erregistroan inskribatua dago, Artxiboko 964 liburukian, Atal Orokorrean, 17. folioan, C-3.342 orrian, eta bere I.F.Z. A15075062 da (aurrerantzean, dagokionean, “Antolakuntza”). Antolakuntzak ZARAREN 50. urteurrenaren ospakizunen harira kontzertu bat antolatu du (aurrerantzean, “Ekitaldia”), eta baldintza eta zehaztapen hauek hartuko dira oinarritzat bertaratzeko (aurrerantzean, “T&C”).

1. XEDEA

Dokumentu honek, ZARA ESPAÑA, S.A.U.k kudeatzen dituen [webgunearen eta/edo aplikazioaren erabilera- eta erosketa-baldintzekin](#) batera (“webguneak”), webguneen erabileraren ondorioetarako, ZARAREN 50. urteurrenaren ospakizunaren harira antolatutako ekitaldira joateko baldintzak ezartzen ditu.

2. APLIKAZIO-EREMUA

Coruña Cúpula Del Monte De San Pedron ZARAREN 50. urteurrenaren ospakizunaren barruan egingo den ekitaldira joango diren pertsona guztiei (aurrerantzean, “bertaratua” edo “bertaratuak”) aplikatuko zaizkie T&Cak. Bertaratutakoek aurrez aipatutako testuak irakurri behar dituzte, eta horiekin eta pribatutasun-politikarekin ados egongo dira. Dokumentu horiek une oro bertaratutakoaren eskura egongo dira webguneetan. Beraz, horiekin ados ez bazaude, ez etorri ekitaldira.

Ordutegiak eta ekitaldira joateko gainerako baldintza espezifikoak webguneetan horretarako gaitutako eremuan zehaztuko direlarik, erabiltzaileak gune horietan kontsultatu ahal izango ditu.

3. SARRERAK

Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango sarrera galdu edo lapurtuz gero. Sarrera bikoiztuta, fotokopiatuta edo faltsifikatuta aurkezten bada, bertaratutakoak bere gain hartuko du erantzukizun osoa, eta aipatutako kasuetan barrutira sartzeko eskubide guztiak galduko ditu.

4. BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK ONARTZEA

4.1. Bertaratuak espresuki irakurri eta onartu behar ditu T&C hauek.

4.2. Sarrera bat eskuratzeak eta sarrera hori ekitaldira sartzeko erabiltzeak berekin dakar T&Cak erabat eta inolako erreserbarik gabe onartzea.

5. ESPARRURA SARTZEA ETA BERTAN EGOTEA

5.1. Barrutira eta, hala badagokio, gaitutako garraiora sartzeko, sarrera aurkeztu beharko da. Sarreraren QR kodea inprimatuta edo edozein gailu mugikorren bidez aurkeztu behar da; hori gabe, bertaratutakoak ezingo du sartu. Dokumentu inprimatua baliozkoa izango da, baldin eta formatua aldatzen ez bada, manipulaziorik aurkezten ez badu eta irakurtzeko adinako kalitatea badu; zati batean inprimatuta badago, hondatuta badago edo irakurtezina bada, ez da baliozkoa izango, eta antolakuntzak uko egin ahal izango dio, bertaratutakoari sartzen utzi gabe. Sarrera dokumentu pertsonala eta besterenezina da, eta han adierazitako leku, saio, data eta ordurako bakarrik balio du.

5.2. Antolakuntzak eskubidea du pertsonen sarrerari ukatzeko. Ezingo da animaliarik sartu, desgaitasuna duten pertsonen laguntza-txakurrak izan ezik. Halaber, debekatuta egongo da kanpoko elikagaiak edo edariak sartzea ekitaldirako mugatutako eremuetan, eta kanpoko aisialdi-guneetan bakarrik baimenduko dira. Era berean, ezin izango da sartu jaurtikorra edo arriskutsua den arma, tresna edo objektu oro.

5.3. Ekitaldira joateko gutxieneko adina hamazortzi (18) urtekoa da izena emateko unean. Adingabeak ekitaldi batean sartzeko, adineko arduradun bat izan behar dute uneoro haiekin. Debekatuta dago adingabeek edari alkoholduak kontsumitzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

5.4. Bertaratutakoek errespetuzko jokabidea izan behar dute, eta beren jokabideak ez du ekitaldiaren garapena oztopatuko eta ez diote trabarik egingo beste bertaratutakoei edo ekitaldiko langileei.

5.5. Antolakuntzak eskubidea du T&C hauek betetzen ez dituen edozein bertaratutako ekitalditik kanporatzeko, baldin eta haren jokabideak ekitaldiaren garapen normalari eragin badiezaioke eta/edo haren edo beste bertaratutako batzuegan kalteren bat eragin badezake, antolakuntzaren jarraibideak errespetatzen ez baditu edo haren jokabideak indarrean dagoen araudia urratzen badu.

5.6. Antolakuntzak eskubidea du noiznahi eskatzeko T&C hauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

6. PROGRAMAREN ALDAKETAK

6.1. Ekitaldiaren programa, data, leku zehatza edo ordutegia aldatu ahal izango dira, arrazoi teknikoak, antolamendukoak edo ezinbesteko arrazoiak direla medio. Beraz, antolatzaileek eskubidea dute T&C horiek aldatzeko, baita Ekitaldia egiteko prozedurak eta ordutegiak ere, beharrezkotzat jotzen badute. Bertaratutakoei eragin diezaiekeen edozein aldaketa aldez aurretik jakinaraziko da. Era berean, antolatzaileek eskubidea dute, aldez aurretik behar besteko aurrerapenaz bertaratutakoei jakinarazita, ekitaldiaren kokalekua aldatzeko edo hura bertan behera uzteko, besteak beste, arrazoi klimatologikoengatik ekitaldia behar bezala eta modu seguruan egiteko arriskua badago.

6.2. Bertan behera utziz gero, bertaratutakoei jakinarazi egingo zaie eskura dauden komunikazio-kanalen bidez. Bertaratutako batek izena eman badu eta etortzerik ez badu, Antolakuntzari jakinarazi beharko dio ekitaldiaren eguna baino hogeita lau (24) ordu lehenago, gutxienez. Horretarako, berrespen-mezuan emandako esteka erabili behar da, erreserba ezeztatzeko.

6.3. Aldaketek eta/edo ezeztapenek ez dute konpentsaziorik ekarriko.

7. MUGAPENAK SARREREN ERABILERAN

7.1. Sarrerak T&C hauetan azaldutako helbururako bakarrik erabili ahal izango dira.

7.2. Debeztatuta dago helburu komertzialekin edo irabazizkoekin saltzea, lagatzea edo eskualdatzea.

7.3. Ezin da sarrerarik erabili sustapen- edo marketin-helburuetarako, baldin eta antolakuntzak ez badu berariaz baimendu.

7.4. Sarrerak bide ofizialetatik soilik eskuratu ahal izango dira. Aretora sartzean haren benetakotasuna egiaztatu ahal izango da, eta irregulartasunik aurkituz gero, sartzeko eskubidea mugatuko da.

8. DATUEN BABESA ETA PRIBATUTASUNA

8.1. Tratamenduaren arduradunak: Bertaratutakoek ekitaldien eremuan emandako datu pertsonalak ZARA ESPAÑA, S.A.U.k eta INDUSTRIA DE DISEÑO TEXTIL, S.A. (laburki, INDITEX, S.A.) tratatuko dituzte, tratamenduaren erantzunkide diren aldetik, Ekitaldian sartzeko eta T&C hauetan ezarritakoari dagokionez. Biek helbidea Avenida de la Diputación, Edificio Inditex, Arteixo (A Coruña), Espainian dute.

8.2. Xedea eta legitimazioa: Datu pertsonalak ekitaldirako sarrera kudeatzeko tratatuko dira, T&Cetan zehaztutakoaren arabera. Datu horiek

tratatzeko lege-oinarria ekitaldien T&Cetan ezarritako baldintzak betetzea da, bertaratutakoak izena emateko prozesuan onartu dituenak.

8.3. Datuak gordetzea: Datuak dagokion helburua betetzeko behar-beharrezkoa den denboran tratatzen badira ere, ondoren behar bezala gordeta eta babestuta gordeko dira, tratamenduaren ondorioz erantzukizunak sor daitezkeen bitartean, une bakoitzean indarrean dagoen araudia betetzeko. Kasu bakoitzean egin daitezkeen ekintzak preskribatu ondoren, datu pertsonalak ezabatuko dira.

8.4. Bertaratutakoaren irudia: Horrez gain, tratamenduaren erantzunkideek bertaratutakoaren irudia tratatuko dute, T&Cetan zehazten diren helburuekin. Irudia tratatzeko lege-oinarria T&Cetan jasotako baldintzak betetzea da, eta hura gordeta egongo da baldintza horiek indarrean dauden bitartean.

8.5. Hartzaileak: Adierazitako helburuak betetzeko, beharrezkoa da erantzunkideek Inditex Taldeko erakundearen parte-hartzaileen datu pertsonaletarako sarbidea izatea. Erakunde horien jarduerak sektore hauekin lotuta daude: dekorazioa, ehungintza, jantzigintzako produktu bukatuak eta etxea, aurrekoen beste edozein osagarri (kosmetika eta larrukigintza barne), merkataritza elektronikoaren garapena eta euskarria, eta ekitaldian zehar eta eskaintzen dituzten zerbitzuetan laguntza ematen dieten hirugarren aldeei. Ekitaldiaren sarrera eraginkortasunez kudeatzeko, aipatutako zerbitzu-emateetako batzuk Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko lurraldeetan egon daitezke, eta, beraz, datuen babesean ez dute Europar Batasunaren pareko babes-mailarik ematen. Kasu horietan, bertaratutakoari jakinarazten zaio erantzunkideek berme egokiekin transferituko dituztela beren datuak, betiere beren datuen segurtasunari eutsiz, datuak nazioartean transferitzeko tresnarik egokienak erabiliz, hala nola kontratu-klausula tipoak edo egokia den beste edozein neurri osagarri. Kontratu-klausula tipo horien edukia esteka honetan kontsulta daiteke: https://ec.europa.eu/info/law/law-topic/data-protection/international-dimension-data-protection/standard-contractual-clauses-scc_en

8.6. Eskubideak: Bertaratutakoek edozein unetan erabili ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubideak. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute dataprotection@zara.com helbide elektronikora. Mezuaren gaian “Evento 50 aniversario” (50. urteurreneko ekitaldia) adierazi beharko dute. Bertaratutakoak bere irudiari dagozkion eskubide horiek erabili nahi baditu, edozein unetan egin ahal izango du. Horretarako, mezu elektroniko bat bidali beharko du dataprotection@zara.com helbidera, postaren gaian “Imagen” (Irudia) jarrita. Beharrezkoa bada, behar bezala identifikatzeko informazio gehiago eskatu ahal izango diogu.

Azkenik, bertaratutakoek aukera izango dute Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, datuen babesarekin zerikusia duen edozein kontsulta egiteko. Horretarako, mezu elektronikoa bat idatzi beharko dute dataprotection@zara.com helbide elektronikora. Halaber, eskubidea dute datuak babesteko alorreko kontrol-agintaritzan erreklamazio bat aurkezteko: http://ec.europa.eu/justice/article-29/structure/data-protection-authorities/index_en.htm

8.7. Informazio osagarria: Bere datuen erabilerari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bertaratutakoek Zararen Pribatutasun Politika kontsulta dezakete www.zara.com helbidean.

9. IRUDIEN ERABILERA

Ekitaldian, zuzenean edo hirugarrenen bidez, bertaratutakoaren irudi pertsonala erakusten duten argazkiak edo bideoak ("Materiala") hartu ahal izango ditu antolakuntzak. Ekitaldira bertaratzean, bertaratutakoak baimena ematen dio antolakuntzari materiala erabiltzeko argitalpenetan (digitaletan nahiz analogikoetan), ekitaldiaren ospakizuna eta garapena erakusteko, adibidez, antolakuntzaren edo taldeko beste sozietate batzuen webgune eta sare sozial ofizialetan, baita haren urteko memorian ere.

Baimen horrek ez du lurralde-mugarik izango, eta zortzi (8) hilabeteko iraupena izango du, bertaratutakoa ekitaldira joaten den egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan, antolakuntzak ez du materiala berriro erabiliko, baina epe horretan argitaratutako materiala eskuragarri egon daiteke da, eta antolakuntzak ez du material hori kentzeko obligaziorik izango.

Beren kabuz baimena eman ezin duten adingabeak edo pertsona ezgaiak inskribatzen baditu bertaratutakoak, eta/edo horiek bere zaintzapean ekitaldira joaten badira, bertaratutakoak adierazten du haien legezko ordezkartza duela, haien irudiaren erabilera baimentzeko, aurreko bi paragrafoetan ezarritako baldintza beretan, eta erabilera hori baimentzen du.

10. BERTARATUTAKOEN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Bertaratutakoek beren arrisku eta ardurapean hartuko dute parte ekitaldi bakoitzean. Halaber, bertaratutakoak dira ekitaldian zehar egiten dituzten ekintzen arduradun bakarrak. Nolanahi ere, bertaratutakoek antolatzaileen gomendioak bete beharko dituzte une oro.

Era berean, bertaratutakoaren objektu pertsonalen kokapena eta kontrola bere ardura izango da, eta ez beste inorena, eta galerarik edo kalterik izanez gero, galera orotatik kanpo utziko du antolakuntza.

Bertaratutakoak edozein unetan ekitalditik alde egin ahal izango du, gainerako bertaratutakoak ekitaldian normaltasunez jarraitzea errespetatuz.

11. ERANTZUKIZUNAREN MUGA

Bertaratutakoak aitortu eta onartu egiten du antolatzaileek eta ekitaldiko langileek ez dutela erantzukizunik izango bertaratutakoen gauzetan edo objektuetan gertatutako edozein galera edo kalteren aurrean.

Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango bertaratutakoek beste bertaratutako batzuen eskubideak urratzen badituzte.

Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango: (i) telekomunikazio-sistemen, webguneen edo ekitaldiaren esparruan erabilitako beste edozein bitartekoren akats, kolapso edo funtzionamendu okerragatik, ezta sarreren transmisio-atzerapenengatik edo inguruabar horien ondorioz sor daitezkeen galerengatik ere; (ii) bertaratutakoei gerta dakizkiekeen huts, kalte edo galerengatik, ekitaldian parte hartzeko beharrezkoak diren webguneak edo hirugarrenen aplikazio informatikoak erabiltzeagatik, webguneetan ezarritako beste batzuk erabiltzeagatik, edo ekitaldiaren eremuan erabilitako beste edozein baliabide erabiltzeagatik.

Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango haiei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik gertatutako atzerapen, kalte, galera edo narriadurengatik. Halaber, antolatzaileek ez dute erantzungo ekitaldia egitea galaraz dezaketen ezinbesteko kasuetan (grebak, etab.). Antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik izango, aipatutako kasuren bat gertatzen bada.

12. LEGEDI ETA JURISDIKZIO APLIKAGARRIAK

12.1. T&C hauek Espainiako legeriak arautuko ditu.

12.2. T&Cak interpretatzearen edo aplikatzearen ondoriozko edozein eztabaida ebazteko, alderdiak ekitaldia egin den lekuko epaitegien eta auzitegien mende jarriko dira.

13. HARREMANETAN JARTZEKO DATUAK

Ekitaldiari edo T&C hauei lotutako zalantza, kontsulta edo kexa adierazteko, idatzi mezu elektroniko bat helbide honetara:

50aniversario@zara.com. Horrela, ahalik eta modurik hoberenean eta bizkorrenean erantzuten saiatuko gara.